## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1845**

**97/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 13koa. Honen bidez, hasierako onarpena eman zaio Ebroren Konfederazio Hidrografikoak sustatuta, Aguraingo 1 zenbakiko industrialdeko 20 zenbakidun lurzatian plubiometri ekipo bat jartzeko baimen espedienteari.**

AURREKARIAK

Ebroren Konfederazio Hidrografikoak Aguraingo Udalari baimena eskatu zion lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta paisaia babesteko zonaren kalifikazioa dituen lur batean plubiometri ekipo bat jartzeko.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak arautzen duen baimen izapideak betetzearren, Aguraingo Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitektoaren txostena barne.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, sektorean aplikagarri den legediak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat jotzen dituen hornigaiek, ekipoek eta jardunek baino ez dute lekua lurzoru urbanizaezinean. Gainera, hala izanda ere, foru aldundiaren ebazpen bidez interes publikoko izendatuak izan behar izan dute, hogei eguneko jendaurreko izapidea bete eta gero.

Aztertutako kasuan, behin-behineko onarpena izapide bat baino ez da, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du aurreikusten, inondik inora, behin betiko onarpenerako gorde beharreko erabakien gaineko aurreiritzirik ematen.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Ebroren Konfederazio Hidrografikoak sustatuta, Aguraingo 1 zenbakiko industrialdeko 20 zenbakidun lurzatian plubiometri ekipo bat jartzeko baimen espedienteari. Ekipo hori lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta paisaia babesteko zonaren kalifikazioa dituen lur batean da jartzekoa.

Bigarrena.- Honako foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera espedientea HOGEI EGUNEZ egongo da jendaurrean Hirigintza Zerbitzuan, nahi duen orok aztertu eta egoki deritzen alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 14a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1845**

**ORDEN FORAL 97/2008, de 13 de marzo, de aprobación inicial del expediente de autorización de un equipo de pluviometría en la parcela 20, polígono 1 de Salvatierra, promovido por La Confederación Hidrográfica del Ebro.**

ANTECEDENTES

La Confederación Hidrográfica del Ebro, solicitó ante el Ayuntamiento de Salvatierra licencia para la instalación de un equipo de pluviometría, en terreno clasificado como No Urbanizable y calificado como “zona de protección paisajística”.

El Ayuntamiento de Salvatierra remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, incorporando el informe emitido por el arquitecto técnico municipal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De acuerdo con el régimen establecido en el artº 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, podrán llevarse a cabo en el suelo no urbanizable las actuaciones dirigidas específicamente y con carácter exclusivo al establecimiento de dotaciones, equipamientos y actividades declarados de interés público por la legislación sectorial aplicable o por el planeamiento territorial, y que en todo caso y para el caso concreto, sean además declaradas de interés público por resolución de la diputación foral correspondiente previo trámite de información pública de veinte días.

La naturaleza jurídica de la aprobación inicial en el caso examinado tiene el carácter de acto de trámite, simple impulsor del procedimiento que posibilita la publicación de su contenido, sin que suponga, de ningún modo, prejuzgar decisiones reservadas al acto de aprobación definitiva.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar inicialmente el expediente sobre autorización de instalación de un equipo de pluviometría en la parcela 20, polígono 1 de Salvatierra, en terreno clasificado como suelo no urbanizable y calificado como “Zona de protección paisajística”, promovido por La Confederación Hidrográfica del Ebro.

Segundo.- Iniciar un periodo de exposición pública de VEINTE DÍAS a partir de la publicación de la presente Orden Foral en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava -Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala-, periodo durante el cual podrán presentarse cuantas alegaciones se estimen oportunas, pudiendo examinarse el expediente en el Servicio de Urbanismo.

Vitoria-Gasteiz, 14 de marzo de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1846**

**99/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 13koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Luiaondoko (Aiara) Luiaondo I plan partzialaren espedientea.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2008ko urtarrilaren 23an Aiarako Udalak bidalitako ofizioa (sarrera erregistroko zenbakia: 1186) jaso zen foru aldundian. Ofizio horren bidez, udalak Luiaondo I plan partzialaren espedientea bidali zion aldundiari, hala bazegokion, behin betiko onarpena eman ziezaion.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1846**

**ORDEN FORAL 99/2008, de 13 de marzo, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial Luiaondo I en Luiaondo (Aiara).**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- En fecha 23 de enero de 2008 y número de registro de entrada 1186 se recibió un oficio del Ayuntamiento de Aiara remitiendo el expediente del Plan Parcial Luiaondo I con el fin de que le fuera concedida la aprobación definitiva si procediera.

Bigarrena.- Espedienteko agiriak aztertuta, ondokoak ondorioztatzen dira horiek izapidetzean:

A) Udalbatzak 2007ko azaroaren 22ko ohiko bilkuran plan partzialari hasierako onarpena ematea eta plan partzial hori hogei egunez jendaurrean jartzea erabaki zuen. Azken horretarako iragarki bana argitaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (143 zenbakia. 2007ko abenduaren 5a), El Correo egunkarian (2007ko azaroaren 28a) eta udal iragarki taulan.

B) Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2008ko urtarrilaren 17ko ohiko osoko bilkuran behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Diputatu nagusiaren abuztuaren 8ko 186/2007 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onarpena eman ala ez Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari dagokio, plan partziala aztertu eta espedienteak jendaurrean arauzko epea bete ondoren.

II.- OINARRIAK.

Lehenengoa.- Dokumentuak, eremu pribatutik sustatutakoak, Luiandoguneko Luiaondo I sektorearen antolamendua garatzen du, halaxe jasotzen baitu eremu horretan indarrean dagoen hirigintza antolamenduak, Aiarako arau subsidiarioen arauen ondorioz gauzatutakoak -.Aiarako arau subsidiarioak apirilaren 12ko 275/2005 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko-, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da.

Bigarrena.- Dokumentu horretan oro har udalaren hirigintza antolamenduan xedatutakoak zehazten dira, dena den, ezin izan da arauen aldetik ondo zehaztu toki sistemen sareraren hornidura publikoen eta ekipamendu pribatuen kontua, dokumentuaren 78. artikuluan aipatutakoa; beraz, Hirigintza Planeamenduaren Arautegiak (2159/78 ED) jasotako estandarrak ezarri dira.

Halaber, apirilaren 11ko 68/200 Dekretuan xedatutakoa zehazten da. Dekretu horren bidez, hiri inguruneetako, espazio publikoetako, eraikuntzetako eta informazio eta komunikazio sistemetako irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dira; gainera, dekretu horrek Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/97 Legea garatzen du, ondoren zehazten diren salbuespenekin.

Hirugarrena.- Barruko bide sarea.

68/2000 Dekretuaren 3.11 artikuluak mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuentzako lekuak, kokagunea eta gutxieneko neurriak zehazten ditu.

Agiri grafikoek aparkalekuak non dauden eta zein ezaugarri dituzten adierazi beharko dute; batez ere arestian adierazitakoak, izan ere, bertan agertzen diren bi aparkalekuek ez dituzte dekretuak xedatutakoak betetzen.

Horri lotuta, eta agirian ezartzen den Hirigintza Planeamenduaren Arautegiak 45 g), 48, 53.2 eta 55.2 artikuluetan xedatutakoari lotuta, bidezkoa da zabor edukiontziak non jarriko diren adieraztea, edo bestela, aparkalekuei edo ibilgailuentzako bideei eragozpenik ez eragiteko, non jarri daitezkeen.

Laugarrena.- Plan partzialaren ekimen pribatua dela eta, ondokoak zehaztu behar dira.

Hirigintza Planeamenduaren Arautegiak 46. artikuluan adierazten du ekimen pribatuko hirigintza lanei buruzko plan partzialek ondoko zehaztapenak izan beharko dituztela, besteak beste:

“…/…

b) Urbanizatzaileak eta udalak eta urbanitzaileak eta jabeek hartu beharko dituzten konpromisoak, ondoko hauek direla eta:

1.- Urbanizazio obrak gauzatzeko epeak eta zerbitzuak ezartzekoak, hala badagokio.

…/…

3.- Urbanizazioa onik zaintzea. Gainera, ubanizaio lanak udalak, lurzatien jabeak edo sustatzaileak egingo dituen adierazi beharko

Segundo.- Del examen de los documentos que componen el expediente se desprenden los siguientes hechos fundamentales en su tramitación:

A) En sesión ordinaria de fecha 22 de noviembre de 2007, se acordó aprobar inicialmente el Plan Parcial y someterlo a información pública por el plazo de veinte días, haciéndose efectiva mediante la inserción de los respectivos anuncios en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava nº 143, de 5 de diciembre de 2007, en el periódico “El Correo” de 28 de noviembre de 2007 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

B) Dentro del plazo de exposición pública no fue presentada alegación alguna procediendo el Ayuntamiento, en sesión ordinaria del día 17 de enero de 2008, a la aprobación provisional del expediente.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el Decreto del Diputado General número 186/2007, de 8 de agosto, la aprobación definitiva, si procediese, corresponde al Diputado titular del Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial, a la vista del documento del Plan Parcial y del resultado de su exposición pública durante el plazo legal.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El documento, de iniciativa particular, desarrolla la ordenación del Sector Luiaondo I del núcleo de Luiaondo según la Ordenación Urbana vigente en dicho ámbito y resultante de las Normas Subsidiarias Municipales de Aiara aprobadas definitivamente por Orden Foral 275/2005 de 12 de abril y ha sido tramitado siguiendo el procedimiento establecido en la ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Segundo.- Sus determinaciones cumplen, en líneas generales, lo dispuesto en dicha Ordenación Urbana Municipal y ante la falta de la necesaria definición reglamentaria de las dotaciones públicas y equipamientos privados para usos de la red de sistemas locales, a las que alude su art. 78. A, el documento aplica los estándares derivados del Reglamento de Planeamiento Urbanístico (R.D. 2159/78)

También cumplen lo dispuesto en el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las “normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación”, que desarrolla la Ley 20/97 sobre Promoción de la Accesibilidad, con las excepciones que se señalan a continuación.

Tercero.- En relación con la red viaria interior

El art. 3.11 del Decreto 68/2000 señala las necesarias reservas, la ubicación y las dimensiones mínimas de las plazas de aparcamiento para vehículos que transporten personas con movilidad reducida.

Los documentos gráficos deben indicar la situación y las características de las plazas de aparcamiento, especialmente las antes señaladas, ya que las dos plazas indicadas en los mismos, no cumplen con dicho Decreto.

En relación con lo anterior y con lo dispuesto en los arts. 45 g), 48, 53.2 y 55.2 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico que es aplicado por el documento, procede sean señaladas las ubicaciones de los contenedores de basura, o bien señalar procedimiento sustitutivo de los mismos, evitando su posible interferencia con las plazas de aparcamiento o los viales rodados.

Cuarto.- En relación con la iniciativa particular del Plan Parcial

El art. 46 del R.P.U. señala que los planes parciales que se refieran a urbanización de iniciativa particular, deberán contener, entre otras precisiones:

“…/…

b) Compromisos que se hubieren de contraer entre el urbanizador y el Ayuntamiento, y entre aquél y los futuros propietarios, en orden a:

1º- Plazos de ejecución de las obras de urbanización e implantación de los servicios, en su caso.

…/…

3º- Conservación de la urbanización, expresando si correrá a cargo del Ayuntamiento, de los futuros propietarios de parcelas o

da. Lurzatien jabeek eta sustatzaileek, gainera, urbanizazioa noiz arte zaindu beharko duten adierazi beharko dute.

…/…

c) Konpromiso horiek bete egingo direlako bermea; hain zuzen ere, urbanizazio obrak gauzatzeko zerbitzuak ezartzeak eragingo duen kostuaren % 6. Halaxe jasotzen du plan partzialak berak egindako ekonomia ebaluazioak. Bermeak dirutan zein balore publikoen bidez edo banku abal bidez eman ahal izango dira.

Bosgarrena.- Agiriaren zenbait alderdi

Plana burutzeko antolamenduaren eta kudeaketaren jarraibideen azterlanean, plan partzialaren izenaren bi huts daude, baina erraz zuzen daitezke.

Seigarrena.- Agiriari behin-behineko onarpena emateko bete beharreko baldintzak.

Agirian ondoko hauek jaso beharko dira: Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko onarpena; isurketetarako baimena; azpiegituren sareetara konektatzeko Luiaondoko Administrazio Batzarraren oniritzia, eta urbanizazio eremuko lurzati pribatuaren kanpoaldeko azalera kontuan izatea, halaxe jasotzen baitu udalaren behin-behineko onarpenak.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Luiaondoko (Aiara) Luiaondo I sektoreko plan partzialaren espedientea behin betiko onartzea, baldin eta ondoko aldaketak egiten badira:

1.- Eremu barruko bide sarea.

- Mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzeko ibilgailuentzako lekuak, kokagunea eta neurriak zehaztuko dira, 68/2000 Dekretuaren 3.11 artikuluak xedatutakoa betez.

- Zabor edukiontziak non jarriko diren adieraziko da, edo bestela, aparkalekuei edo ibilgailuentzako bideei eragozpenik ez eragiteko, non jarri daitezkeen.

2.- Plan partzialaren ekimen pribatua

Hirigintza Planeamenduaren Arautegiko 46. artikuluak xedatutakoa beteko da, urbanizatzaileak eta udalak eta urbanitzaileak eta jabeek hartu beharko dituzten konpromisoak direla eta, urbanizazio obrak gauzatzeko eta zerbitzuak ezartzeko epeei dagokienez; baita urbanizazioa onik zaintzeko erari eta konpromiso horiek betetzeko bermeari dagokienez ere.

3.- Agiriaren zenbait alderdi

Plana burutzeko antolamenduaren eta kudeaketaren jarraibideen azterlanean plan partzialaren izena dela-eta egindako bi hutsak zuzendu egingo dira.

4.- Agiriari behin-behineko onarpena emateko bete beharreko baldintzak.

Arestian adierazitako baldintzak jasoko dira: Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko onarpena; isurketetarako baimena; azpiegituren sareetara konektatzeko Luiaondoko Administrazio Batzarraren oniritzia, eta urbanizazio eremuko lurzati pribatuaren kanpoaldeko azalera kontuan izatea, halaxe jasotzen baitu udalaren behin-behineko onarpenak.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, behin betiko berretsi dezaten.

Hirugarrena.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salaren aurrean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete

de los promotores, con indicación en estos dos últimos supuestos del período de tiempo al que se extenderá la obligación de conservación.

…/…

c) Garantías del exacto cumplimiento de dichos compromisos por importe del 6 por 100 del coste que resulta para la implantación de los servicios de ejecución de las obras de urbanización, según la evaluación económica del propio Plan Parcial. Las garantías podrán prestarse en metálico, en valores públicos o mediante aval bancario.”

Quinto.- Respecto a aspectos puntuales del Documento

En el Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución hay dos erratas de denominación del Plan Parcial, fácilmente subsanables.

Sexto.- Respecto al condicionado impuesto en la Aprobación Provisional del Documento

Deberán incluirse en el documento la preceptiva aprobación de la Confederación Hidrográfica del Norte, la autorización de vertido, el Vº Bº de la J.A. de Luiando para las conexiones de las redes de infraestructuras y tenerse en cuenta la superficie exterior de la parcela privada en el ámbito de la urbanización, según condiciona la Aprobación Provisional Municipal.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector Luiando I de Luiando (Aiara), con la condición de introducir el mismo las siguientes modificaciones:

1.- Respecto a la red viaria interior.

- Se definirán la ubicación y dimensiones de las plazas de aparcamiento cumpliéndose lo dispuesto en el art. 3.11 del Decreto 68/2000 respecto de las correspondientes a vehículos que transporten personas con movilidad reducida.

- Se definirán las ubicaciones de los contenedores de basura o procedimientos sustitutivos evitando su interferencia con las plazas de aparcamiento o viales rodados.

2.- Respecto a la iniciativa privada del Plan Parcial

Se cumplirá lo dispuesto en el art. 46 del R.P.U. respecto a los compromisos a contraer entre el urbanizador y el Ayuntamiento y entre aquél y los futuros propietarios, en orden a los plazos de ejecución de urbanización y servicios, de la forma de conservación de la urbanización y de las garantías de dichos compromisos.

3.- Respecto a aspectos puntuales del Documento

En el Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución se corregirán las dos erratas de denominación del Plan Parcial.

4.- Respecto al condicionado impuesto en la Aprobación Provisional del Documento

Se incluirán las condiciones señaladas: la preceptiva aprobación de la Confederación Hidrográfica del Norte, la autorización de vertido, el Vº Bº de la J.A. de Luiando para las conexiones de las redes de infraestructuras y se tendrá en cuenta la superficie exterior de la parcela privada en el ámbito de la urbanización, según condiciona la Aprobación Provisional Municipal.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de poder proceder a su sanción definitiva.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la reso-

izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 14a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1847**

**101/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 13koa, Olarizu-Berganzo (Zambrana) 13,2 kW-ko airetiko linea elektrikoaren hargunea jartzeko baimen espedienteari hasierako onarpena ematen diona.**

AURREKARIAK

Francisco Javier Arnaiz Sáenz jaunak baimena eskatu zion Zambranako Udalari Olarizu-Berganzako 13,2 kW-ko airetiko linea elektrikoa dela-eta zenbait lan egiteko urbanizaezinaren sailkapena duen lurzoruan.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatutako izapidea betetze aldera, Zambranako Udalak aldundira igorri zuen espedientea, eta azken horrek baimen eskaerari baiezkoa eman zion.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, sektorean aplikagarri den legediak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat jotzen dituen hornigaiek, ekipoek eta jardunek baino ez dute lekua lurzoru urbanizaezinean. Gainera, hala izanda ere, foru aldundiaren ebazpen bidez interes publikoko izendatuak izan behar izan dute, hogei eguneko jendaurreko izapidea bete eta gero.

Aztertutako kasuan, behin-behineko onarpena izapide bat baino ez da, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du aurreikusten, inondik inora, behin betiko onarpenerako gorde beharreko erabakien gaineko aurreiritzirik ematen.

Horregatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Olarizu-Berganzoko (Zambrana) 13,2 kW-ko airetiko linea elektrikoaren hargunea jartzeko baimen espedienteari, Francisco Javier Arnaiz Sáenz jaunak sustatutakoari, hasierako onarpena ematea. Lan horiek lurzoru urbanizaezinaren sailkapena duen eremuan egingo dira.

Bigarrena.- Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera espedientea hogei egun jartzea jendaurrean Hirigintza Zerbitzuan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 14a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**1848**

**100/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 13koa. Honen bidez, baimena ematen da Okondoko 3 poligonoko 191 lurzatian planta fotovoltaikoa jartzeko. Ekimena Angel María Solaun Molinuevo jaunak sustatu du.**

AURREKARIAK

Okondoko 3 poligonoko 191 lurzatian, lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta nekazaritza zonaren kalifikazioa duen eremuan, planta

lución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 14 de marzo de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1847**

**ORDEN FORAL 101/2008, de 13 de marzo, de aprobación inicial del expediente de autorización para la instalación de acometida de la línea aérea eléctrica de 13,2 Kw de Olarizu-Berganzo, municipio de Zambrana.**

ANTECEDENTES

Francisco Javier Arnaiz Sáenz solicitó ante el Ayuntamiento de Zambrana licencia para actuaciones diversas en la línea aérea eléctrica de 13,2 Kw de Olarizu-Berganzo, en terreno clasificado como No Urbanizable.

El Ayuntamiento de Zambrana remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, informando favorablemente la solicitud de licencia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De acuerdo con el régimen establecido en el artº 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, podrán llevarse a cabo en el suelo no urbanizable las actuaciones dirigidas específicamente y con carácter exclusivo al establecimiento de dotaciones, equipamientos y actividades declarados de interés público por la legislación sectorial aplicable o por el planeamiento territorial, y que en todo caso y para el caso concreto, sean además declaradas de interés público por resolución de la diputación foral correspondiente previo trámite de información pública de veinte días.

La naturaleza jurídica de la aprobación inicial en el caso examinado tiene el carácter de acto de trámite, simple impulsor del procedimiento que posibilita la publicación de su contenido, sin que suponga, de ningún modo, prejuzgar decisiones reservadas al acto de aprobación definitiva.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar inicialmente el expediente sobre autorización de instalación de acometida de la línea aérea eléctrica de 13,2 Kw de Olarizu-Berganzo, municipio de Zambrana, en terreno clasificado como suelo no urbanizable, promovido por Francisco Javier Arnaiz Sáenz.

Segundo.- Iniciar un periodo de exposición pública de veinte días a partir de la publicación de la presente Orden Foral en el BOTHA, periodo durante el cual podrán presentarse cuantas alegaciones se estimen oportunas, pudiendo examinarse el expediente en el Servicio de Urbanismo.

Vitoria-Gasteiz, 14 de marzo de 2008.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**1848**

**ORDEN FORAL 100/2008, de 13 de marzo, de otorgamiento de autorización para la instalación de una planta fotovoltaica en la parcela 191 del polígono 3, de Okondo, promovida por Angel María Solaun Molinuevo.**

ANTECEDENTES

El Ayuntamiento de Okondo remitió expediente para cumplimiento del trámite autorizatorio que ordena la Ley 2/2006, de 30 de